

SARS-CoV-2aren infekzio kronikoak aldaera arriskutsuak sortzea errazten du

Ikertzaileek ulertu nahi dute nola eboluzionatzen duen birusak pertsona batetik bestera errazago transmititzeko, immunitate-erantzuna saihesteko edo larriagoa edo arinagoa bilakatzeko. Ezaugarri horietako batzuk edo guztiak infekzio kroniko batean sor daitezkeela uste dute, [Nature-n argitaratutako artikulua baten arabera](#).



ARG.: Raimond Spekking/CC.

Zenbait pertsonatan, SARS-CoV-2aren infekzioa asko luzatzen da, baita hilabeteetan ere. Halako kasu bati egindako jarraipenean, ikertzaileek frogatu dute birusa aldatzen joaten dela, eta sortzen diren mutazioetako asko bat datozela gehien hedatu diren aldaerek dituztenekin.

COVID-19a azaldu zenetik pertsona batetik bestera transmititzean izan duen bilakaera aztertuta, ondorioztatu dute bi ezaugarri nagusik gidatu dutela eboluzioa: infektatzeko gaitasuna, eta immunitate-sistemari ihes egitekoa.

Infekzio akutuek 1-2 aste irauten dute, eta, beraz, ez dago denborarik ezaugarri jakin bat duen aldaerak besteari gain hartzeko. Infekzio kronikoetan, berriz, mutazio desberdinak dituzten bertsioek elkarren aurka lehiatzeko denbora dute. ●

Asko gutxietsi dira gizakiak itsasoan eragindako petrolio-isuriak

Orain arteko estimazioek zioten itsas azalean dauden hidrokarburoen ia erdia itsas hondoko petrolio-biltegi naturaletatik iragazitakoa zela. Baina Nanjing Unibertsitateko (Txina) geologoek egindako ikerketa baten arabera, % 6 baino ez da itsas hondotik naturalki iragazitakoa. Gainerako % 94ak jatorri antropogenikoa du.

Ez da erraza petrolioaren orbanak monitorizatzea eta estimazio fidagarriak egitea. Izan ere, orbanak etengabe eraldatzen dira, eta ozeanoaren azalera oso handia da. Geologo txinatarrek, ordea, 450.000tik gora petrolio-orban monitorizatu dituzte satelite-irudien bidez, eta ikusi dute 1,5 milioi kilometro karratu baino gehiago daudela marea beltzez estalita, Frantziaren azaleraren halako bi. Orban gehienak kostatik 160 km-rako tartean dauden uretan, petrolio-plataformen inguruan eta nabigazio-bideetan azaltzen direla adierazi dute.

Orbanak geruza mikroskopikoki finak izanik ere, itsas bizidunei eragiten dien estres kimikoa handia dela gogorarazi dute. [Science aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#). ●



Suteak kaltetu ondoren petrolio-plataforma batek eragindako petrolio-isuria. Kea txuriz azaltzen da, eta petrolio-orbanak, kolore ilunez (petrolio gordina eta emulsionatua) edo kolore metalikoz (petrolio findua).

ARG.: Chuanmin Hu, Hego Floridako Unibertsitatea.